



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

EUSKO JAURLARITZAREN
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN
ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEAN
HIZKUNTZA POLITIKAKO GAIETAN
LANKIDETZAN JARDUTEKO HITZARMENA

-
2024ko ERANSKINA

Bildurik

Batetik,

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, **Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI** jauna,

Eta bestetik,

Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria, **Maïder BEHOTEGUY** anderea, 2024ko apirilaren 8ko Biltzar nagusiak emandako ahalmenak erabiliz,

Honako hau,

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Adierazten dute

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2021eko martxoaren 23ko bileran, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzan garatzeko esparru-hitzarmena izenpetzea onartu zuen.

2024

Era berean, Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, 2021eko martxoaren 25eko bileran, esparru-hitzarmen hori izenpetzea onartu zuen.

Horrela, 2021eko martxoaren 31an, Baionan eta Gasteizen erakunde bien arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zen.

Ondorioz, aitzineko hitzarmenen jarraian, 2021-2025 epealdirako indarraldia duen hitzarmen berriaren xedea da Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzeta garatzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuta.

Elkarlana zehazteko prozedurari dagokionez, hitzarmenaren laugarren atalean adierazten da urtero eranskin baten bitartez elkarlanean garatuko diren egitasmoak zehaztuko direla. Horrekin batera, eta euskararen erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribaturen lana finantzatzeko moduari buruzko zehaztasunak ere, urteko eranskinean jasoko direla zehazten da.

Hori horrela, eranskin honek 2024ko egitekoak zehazten ditu, bai eta Ipar Euskal Herriko eragile pribatuentzako dirulaguntzen zehaztasunak.

Bestalde, euskararen aldeko hizkuntza politikaren sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean mugaz gaindiko lankidetzarako marko berri bat adostu zen, lehen aldiko 2017an, 2017-2021 epealdirako. Lankidetzeta 2021eko urriaren 22an Baionan izenpetu lankidetzeta protokolo orokorraren bidez arraberritu da 2021-2025 epealdirako. Protokoloak hiru partaideen artean bideratu ekintzak biltzen ditu, horietan zenbait EEP eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen honetan agertzen direnak ere.

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Xedapenak

1. Hitzarmen eranskinaren helburua

Hitzarmen-eranskin honen helburua da 2024an Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean elkarlanean garatuko diren egitasmoak zehaztea eta Ipar Euskal Herrian euskararen transmisioa eta erabilpena areagotzeko sustapen-lerroak ere finkatzea.

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2024an elkarlanean garatuko dituzten ekimenak

2.1. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruan

2.1.1. Hizkuntza-gaitasunaren mugaz bi aldeetako egiaztagirien baliokidetzaren definizioa eta antolaketa

2009an, Paue eta Aturri aldeko herrialdeetako Unibertsitateak, Bordeaux Montaigne Unibertsitateak eta Euskararen Erakunde Publikoak Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarritzen den euskara-gaitasuna egiaztatzeko dispositibo bat plantan eman ondoren, horretarako sortu batzorde zientifikoan bermatuz, EEPk A2tik C1erainoko azterketak sortu ditu 2009az geroztik:

- C1 maila 2009an (urtean bi azterketaldi),
- B1 maila 2015ean (urtean azterketaldi bat),
- B2 maila 2022an (urtean azterketaldi bat),
- A2 maila 2023an (urtean azterketaldi bat).

Bestalde, EEPko zerbitzuek Eusko Jaurlaritzako zerbitzuekin C1 agiriarentzat mugaz bi aldeetako baliokidetzak gauzatzeko lankidetzan jardun ondoan, Eusko Jaurlaritzaren 2010eko azaroaren 9ko Baliokidetzak Dekretu bidez aitortu zen eta 2010eko maiatzaren 4ko Agindu foralaren bidez Nafarroako Foru Erkidegoan. Ondotik, EEPko zerbitzuak, Kultura eta Hizkuntza Politika saileko Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko zuzendaritzarekin lankidetzan aritu dira beste mailetako agirien baliokidetzak gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak 2023ko apirilaren 18ko dekretu bidez (maiatzaren 17an argitaratua) ofizialki onartu duena, zehaztuz hemendik aitzina EEPren ziurtagiri guztien baliokidetasuna automatikoki onartuko dela.

2024ko, partaideek erabakitzen dute azterketen eta euskaltegien antolaketarako plataforma digitalaren sortze-lanak elkarlanean jarraitzea, EEPek azken urte hauetako hainbat erabaki kontuan harturik, ala nola:

- B2 eta A2 mailako agirien bertsio desmaterializatua sortzea, hurrenez hurren 2019 eta 2022an,
- azterketak digitalki kudeatzeko plataforma sortzea, euskaltegien kudeaketarako atala gehituz.

2.1.2. Helduen euskalduntzearen garatzeko laguntza-dispositiboetarako buruzko diagnosis

2024rako, Helduen euskalduntzearen eremuan Euskararen Erakunde Publikoak definitzekoa duen esku-hartze estrategia kontuan hartuz partaideek adostua:

- dauden laguntza-dispositiboetarako diagnosis bururatzea, EAEn egiten ari diren ikerketak baliatuz,

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

- EAEn dauden bestelako tresna eta dispositiboen aztertzea:
 - ikasleen ikasketa prozesuaren jarraipena egiteko tresnak
 - irakaste prozesuaren kalitatea zaintzeko dispositiboak
 - ikasketatik erabilerara pasatzeko dispositiboak,
 - formakuntza eskaeraren ezagutza neurtzeko tresnak,
- formakuntza galdea garatzea helburu, plantan dagoen komunikazio estrategia aztertzea.

2.1.3. Ingura euskara online ikasteko ingurune digitala

2024rako partaideek adostua:

- Ingura euskara online ikasteko ingurune digitala proiektua Ipar Euskal Herriko ikasleen beharretara egokitzeko beharrezkoak diren egokitzapenak eta lanak aztertzea,
- Ipar Euskal Herrian helduen euskalduntzean ari diren erakundeei aukera ematea Ingura ikas-inguruneke kudeatzaile izan daitezen, beren ikasleekin ikastaroak erabili eta jarraipena eta aholkularitza didaktikoa ahalbidetzeko.

2.2. Euskararen Adierazle Sistema eraikitzeke elkarlana

2013an, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), Nafarroako Gobernuako Euskarabideak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek, Euskararen Adierazle Sistema (EAS aurrerantzean) egitasmo partekatua egituratzeari ekin zioten, Lantalde Teknikoa eratu sistemaren definitze eta egituratze lanetan hasteko.

2016an, partaideek Poctefa Europako Programaren kariatara ko-finantzaketa eskatu eta lortu zuten. Ondotik, adierazle sistemaren ezaugarriak zehazki definitu ziren, datuak bildu, prozesatu eta web gunean zabaldu 2017 amaieran. 2020an, web gunea arraberritua izan da bereziki publiko zabalari datuen eskuratzearen errazteko helburuarekin (diseinu berria baita tutorialak, gidak eta sintesiak eskainiz).

2024rako partaideek adostu dute elkarrekin sortutako adierazle sistemaren garapena elkarrekin jarraitzea, bereziki;

- proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazleen egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz,
- EAS webgunea elikatzeke lanak jarraitzea,
- Proiektuaren ezagutarazteke komunikazio ekintzak plantan ematea.

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

2.3. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuen arteko partaidetza teknikoak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuek partaidetza tekniko batzuk osatu dituzte, gai jakin batzuen inguruan:

2.3.1. Itzultzaile neuronalak:

Euskararen Erakunde Publikoko Biltzar Nagusiak 2019ko abenduaren 17an, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean euskara/frantsesa - frantsesa/euskara itzultzaile neuronal automatikoa garatzeari buruz hartutako erabakiari jarraikiz, EEPk itzulpen corpusaren osatzeko lanak egin ditu. 2024 urterako bi erakundeek erabakitzen dute:

- Eusko Jaurlaritzak garatu duen euskara <-> frantsesa itzultzaile neuronalak elkarrekin garatzen segitzea,
- Eusko Jaurlaritzak, Wordfast gisarako itzulpeneko laguntza tresnetan, Itzuli itzultzaile neuronalaren integrazioarako esteka baten sortzea.

2.3.2. Itzuli Desktop

2024an bi erakundeek erabaki dute Eusko Jaurlaritzak, EEPren Nolaerran.org hiztegia Itzuli Desktop tresna-barran txertatzeko API (aplikazioaren programazio-interfazea) baten sortzea.

2.3.3. HABE Liburutegiari dagokionez

2024rako partaideek adostua:

- HABE Liburutegia, Euskararen Erakunde Publikoan diharduten teknikarien dokumentu-hornitzaile izatea (liburu, artikulua edo beste paperean zein digitalean). Zentzu horretan, teknikariek dituzten dokumentazio-beharrei erantzun die HABE Liburutegiak dokumentu horiek teknikariei helaraziz.
- HABE Liburutegiak, teknikarien aldetik egon daitezkeen gaikako kontsulta espezifikoetarako bibliografia zehatza eskainiz erantzutea,
- aipatu teknikariei, Alertak izeneko zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea.

2.4. VII. inkesta soziolinguistikoaren obratzea

1991. urteaz geroztik, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren bilakaera zehatza aztertzeko helburuarekin (hizkuntza-gaitasuna, transmisioa, erabilera eta praktikak, adierazle ezberdinen garapenak), Eusko Jaurlaritzak inkesta soziolinguistikoa antolatzen du 5 urtetatik, euskara baliatua den hiru lurraldetan (Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian).

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuek 2006, 2011 eta 2016an inkesta soziolinguistikoak lankidetzan burutu dituzte.

Era berean, euskararen aldeko hizkuntza politikaren sustatzeko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean mugaz gaindiko lankidetzaren protokolo berriaren kari, partaideek 2021ean VII. inkesta soziolinguistikoaren obratu dute, eta 2022an datuen ustiapena eta emaitzen azterketa lanak egin dituzte.

Ondorioz, 2023an behin betiko txostenak idatzi ondoren, 2024an partaideek VII. inkesta soziolinguistikoari dagozkion liburukiak argitaratu eta zabalduko dizute euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

3. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren sustapen-lerroak, Ipar Euskal Herriko eragile pribatuen lana diruz laguntzeko

Euskararen transmisioa eta erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribatuen lana finantzatzeko moduaren gaineko zehaztasunak jasotzen dira eranskin honetan.

2024an proiektuak finantzatzeko, alde bien arteko ekarpenez hornitu lankidetzarako fondo bat berriz ere baliatuko da. Honen xedea, beraz, Ipar Euskal Herrian euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuentzat diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

Diruztatuak izanen diren ekimenak 2024an hasi edota gauzatu beharko dira eta indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta dagokion erroldan inskribaturiko Ipar Euskal Herriko pertsona juridiko pribatuek eskatu eta eskura ditzakete agindu honetako diru-laguntzak.

Horretarako, lankidetzarako fondoak eratu da, alde bien ekarpenez. Guztira, **1.930.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarri da era honetan:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.530.000 €**
- Eusko Jaurlaritzak: **400.000 €**

Bi partaideek hornitu lankidetzaren fondo hori, **2 dirutza multzotan** bideratuko da:

- **Lehen dirutza multzoa:** bi partaideen arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko elkarte-eragile jakin batzuk hitzarmen baten berme diruztatuko dira. Orohar, eragile hauen sustatzeko, **1.793.500 €**ko gehieneko zenbatekoa jarriko da, era honetan:

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.421.797 €** (%79,275)
- Eusko Jaurlaritzak: **371.703 €** (%20,725)
- **Bigarren dirutza multzoa:** Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribatuei zuzenduko den hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia irekiko da. Orohar, beste eragile pribatuen diruztatzeko, **136.500 €**ko gehieneko zenbatekoa jarriko da, era honetan:
 - Euskararen Erakunde Publikoak: **108.210 €** (%79,275)
 - Eusko Jaurlaritzak: **28.290 €** (%20,725)

Hitzarmenean adostu bezala, Jarraipenerako Batzordeak, esparru-hitzarmenean zehaztutakoak eta lankidetzaren fondoak koordinatuko ditu, eta lehentasunak, helburuak, aurrekontuak eta erabiltzeko arauak proposatuko ditu. Jarraipenerako Batzordeak, eragileek aurkeztu proiektuen izaeraren arabera, lehenago aipatutako 2 dirutza multzoen egokitzea proposatzeko aukera izango du. Halaber, Batzordeak egitasmoen azterketa teknikoa egingo du, betiere eranskinen ezarritako irizpideekin eta helburuekin bat etorriz.

Lankidetzarako fondoaren kudeaketa, eragile identifikatuen jarraipenari eta hizkuntza-jarduera Proiektu Deialdiaren kudeaketari dagokienez, nagusiki, Euskararen Erakunde Publikoaren esku izango da. Horrela, Euskararen Erakunde Publikoak lehiaketa publikorako deia egingo du. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta presentzia arlo guztietan bermatuko da: egitasmoen balorazioa egiterakoan, erabakietan, laguntzen diren egitasmoen zabalkundeetan...

Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin aurkeztuko dituzte, interesatuen eta hedabideen aurrean, lankidetzarako fondoaren kariatara sustatu ekimenak.

Bestalde, fondo horretako diru guztia banatzen ez bada edo esleitutako laguntzen likidazioa dela-eta diru-itzulketarik izanez gero, Euskararen Erakunde Publikoak, kudeatzaile nagusi den neurrian, horren berri emango dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta proportzionalki dagokion diru-kopurua itzuli beharko dio.

4. Hitzarmenaren kudeaketa

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, hitzarmen hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatuko du. Bestalde, Frantziako instituzioei dagokienez, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak kudeatuko du.

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

5. Ordaintzeko era eta diru-laguntzaren justifikazioa

Eusko Jaurlaritzak, beraz, **400.000 €**ko ekarpena egingo dio Euskararen Erakunde Publikoari, era honetan:

- **1. ordainketan %50** (200.000 €): eranskina sinatutakoan,
- **2. ordainketan %50** (200.000 €): diru-laguntza osoa justifikatutakoan.

Diru-laguntza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio Euskararen Erakunde Publikoak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari: batetik, emandako ebazpenak, eta bestetik, diruaren erabilera ziurtatzen duen txosten zehatza. Txosten horretan jasoko dira laguntza-modalitate bakoitzeko onuradunak bai eta egitasmo bakoitzaren betetze-maila eta balantze ekonomikoa ere.

Justifikazioa aurkezteko epea 2025ko ekainaren 30ean bukatuko da. Esleitutako laguntzen likidazioa dela-eta diru-itzulketarik izanez gero, Euskararen Erakunde Publikoak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari proportzionalki dagokion diru-kopurua itzuliko dio.

6. Engaiamenduak

Hitzarmena gauzaterakoan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan laguntza eta dirulaguntzetarako ezarritako araubidea bete beharko da, baita 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak ere eta, bereziki, beren lana burutzeko eskatzen duten informazio guztia emango zaie Eusko Jaurlaritzaren Ogasuna eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

7. Ez betetzeak

Hitzarmen honetako estipulazioak edo beste edozein xedapenetan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozein manu orokor bete ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak xedatutakoa bete ondoren eta bertan adierazten den bezala.

8. Auziak

Bestalde, hitzarmenaren aplikazioan sor daitezkeen auziak Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegi eskudunen jurisdikzioak eta Paueko Epaitegi Administratiboak ebatziko dituzte, kasuen arabera.

2024

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

9. Eranskinaren iraunaldia

Eranskin hau sinatzen denetik 2024ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute frantsesez eta euskaraz, biak ere balio berekoak izanik.

Baionan eta Gasteizen, 2024ko apirilaren 9an.

Eusko Jaurlaritzaren
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI

Izenpea

Euskararen Erakunde Publikoaren
lehendakaria

Maïder BEHOTEGUY

Izenpea

2024